

## **Lakarra, J. A. (1985), “Larramendiren hiztegi-intzaren inguruan”**

Lakarrak Larramendiren hizkuntzazko idatziak irakurketa berri eta zuzenagoaren premian daudela dio, Azkue eta Aranaz geroztik mespretxu eta gutxiespenetan jarraitu baitute.

### Apologiak

Larramendiri buruz idatzi duten gehienek apologistatzat jo izan dute. Lakarrak hori baino gehiago izan zela dio eta, baita, apologisten artean ere bereizketan bat egin nahi du taktikoki (erabiltzen zituzten mito eta topoi arabera) baina baita haien helburuen arabera ere. Ezin dira talde berean sartu Garibai eta plaza, Erlo eta Etxeberri, Larramendi eta Astarloa.

Garai hartan apologiak ezinbestekoak ziren; beren hizkuntza (kasu honetan euskara) besteak bezain on, aberats, konplikatu eta noblea, zaharra, zela erakutsi behar zuten. Hala ere, apologista hutsek ez zuten hiztegiak egiten normalean, Etxeberri eta Larramendiren kontrako, baina biek behar zituzten apologiak: gramatika edota hiztegi bat serioegia zen garai hartan edozein hizkuntzari buruz egin eta argitaratzeko. Hizkuntza jakinak merezi egin behar zuen eta soilik hori egin ondoren egin zezakeen jauzi praktikara, hiztegi edo gramatika bat argitaratzen saiatuz.

### Hitzberriak

Liburu eta gai berriei buruzko ikerketak ugarituaz, terminologia berria behar zen. Larramendi berak aitortzen eta aldarrikatzen du hitz teknikoak asmatu zituela eta baita hizkera anitzeko beste pare bat hitz ere. Hizkuntzaren askatasuna lortzeko eta morrontza apurtzeko beharrezkotzat jotzen zuen ahalmen hau. Ez da zilegi gaur egungo ikuspuntutik pentsatzea xeblekeria edota bitxitasun hutsagatik egin zuela; alta, bere neologismoak orduan onartu eta hedatu izan balira, ez litzaiguke barregarria baino zuhur eta aurreratua irudituko.

Hiztegi inolako euskalki bereizketarik gabe, bildu ahal izan zituen euskarazko hitz guztiak sartu zituen, Euskal Herri guztian zehar zabal zitezen. Hauen ondoren, erderatiko maileguak sartzen ditu eta azkenik soilik zientzia eta tekniketarako berbak asmatzen (euskara atzerakoia baitzen gai horietan).

### Euskal tradizioa

Askotan aipatu izan da Iparra eta Hegoaren arteko muga, harreman falta, baina ikerketek aurrera egin ahala harremana nabaritzen doa. Larramendik Bizkaiko eta Nafarroako zenbait liburuxkaren alboan Leizarraga, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harriet, Xurio, Etxeberri Sarakoa eta besteren aipamenak hiztegiaren aurreko euskal literaturaren zerrendan jartzen ditu.

### Maileguez

Larramendi eta bere jarraitzaileek Sabino Aranaren oso iritzi ezberdinak dituzte, kontrakoak izateraino. Larramenditarrek halabeharrez sortzen dituzte berba berriak, ez erderatiko euskal hitzen ordezkotzat, baina bai erdal hitz ordaingabeak itzuli ahal izateko.

Mitxelenaren hitzetan, ezberdintasun nagusia Larramendiren garbizaletasuna zen Sabindarren garbizalekeriaren aurrean. “Nekerik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen Larramendik euskarari, euskal idatziari buruz, artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa.”

Hala ere, guztiz onartzen ditu beste hizkuntzetan bezala kanpotik etorritako hitzak, hots, beren euskal ordaina izan arren jadanik hedatuta daudenak, ezagunagoak. Kanpoan uzten ditu, aldiz, sermoilari txarren eta mihi zitalen erdarakadak.

Hitzak, gramatika eta literatur euskalkiak

Larramendi hitzen aukeraketaz bezain beste edo gehiago arduratzen zen gramatikaren erabileraz. *“El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada”* bere lanetik edan zuten mende hartako idazle gehienek.

Lakarrak esango luke bere lanak ez direla behar bezala ulertuak izan, hiztegia eta gramatika biak batera aztertu ez direlako, elkarren osagarriak izanik. Euskal literatura zaharraren produkzio kopuruaren taulari erreparatuz, adierazgarria da Larramendik gramatika eta hiztegia argitara eman ondoren ematen den jauzi nabarmena:

Gipuzkera 7 liburu izatetik 23ra igaro zen, hegoaldeko literatur euskalkia bilakatuz. Oso azkar gertatu zen hau; 1745 baino lehen Otxoa (1713) eta Irazustaren (1737) doktrinak soilik eta 50 urtetan gauzak asko aldatu ziren. Masa kritikoa eta honen kalitatea asko hazi zen.

#### Ondorioak

Larramendiren lanari buruzko zenbait puntu aztertzen saiatu naiz. Euskal literaturaren eta lexikografiaren bultzatzaile eta ardatz izan zela dio Lakarrak, bere obraren garrantzia goregi jartzeko arrisku gutxi daudela jakinaraziz. Bere ezagutza sakonagoa ezinbestekoa da sail horiek argitzen saiatzen diren filologo eta hizkuntza historialarientzat, Larramendirengandik oraindik ere zerbait ikasten jarrai dezakegu eta.